


Aurkezpena



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

1. DBH-ko lehen zikloan proposatutako hezkuntza-materiala

Karpeta pedagogiko honek hainbat proposamen didaktiko ditu eta, horien bidez, curriculumeko materia bakoitzetik abiatuta, gizartearen partaidetzaren gaia landu daiteke. Prozedurazko proposamen berrietatik abiatuz jarrerak eta balioak lantzeko apustua egiten duen materiala da. Garrantzitsuenak ez dira, beraz, kontzeptuei dagozkien edukiak; aitzitik, elkartasuneko jarrera arduratsuak lortzeko eta ikaskuntza garrantzitsuak lortzeko aukera ematen duten prozedura berritzaileak dira oinarritzkoak.

Proposamen hau hiritartasunaren kontzeptua lantzen duen hezkuntza-proiektu zabalago baten zati da. Proiektuan hiru gai desberdin lantzen dira hiru ikasturtetan: eskubideak eta erantzukizunak; gizartearen partaidetza; eta gatazkak maneiatu eta konpontzeko modu baketsuak. Ondoren, proiektuaren bigarren urte honetan sortutako hezkuntza-materialaren zati bat aurkezten da; material honek, hain zuzen, gizartearen partaidetzaren gaia lau premisa hauetatik lantzeko aukera ematen du:

- Antolatutako pertsona askoren ahaleginari eta parte-hartzeari esker lortu dira gauza gehienak gizartean.
- Eremu zabalagoetan parte hartzeko, gertuen dauden eremuetan parte hartzen hasi behar da (familia, ikasgela, auzoa).
- Mundua aldatzen laguntzeko aukera ugari dago.
- Partaidetzak bizi garen munduko protagonistak izateko eta pertsona ororentzat mundu duin eta justua goa eraikitzeko aukera ematen du.

Hiritar gisa bizi garen gizartean sartu eta parte hartzeko erantzukizuna –gure gain hartu behar duguna– lantzeko jarduera-proposamenak egiten dira hainbat curriculum-diziplinen ikuspegitik. **Matematikaren** arloan, zenbakizko datu eta datu estatistikoetan oinarrituta, gizartearen partaidetza bultzatzeko aukera ematen duten bideei buruz hausnartzea proposatzen da. **Gizarte-zientzietan**, gizarteak lortu nahi dituen egoerak lortzeko antolatuta parte hartzeko erantzukizun pertsonala eta kolektiboa lantzen da. **Gorputz-hezkuntzan**, norberaren ekintzak eta taldekoenak koordinatzean eta lankidetzara eraginkorragoa izateko estrategiak aztertzean oinarrituta, gizartearen partaidetzaren mugak ikertzen dira. **Ingelesean**, pertsona guztiek gizartean parte hartzeak duen garrantzia lantzen da. **Natur zientzietan**, ingurunean parte hartzeko egon daitezkeen moduak ikertzea eta gatazka-egoerak era baketsuan eta aktiboki konpontzea proposatzen da. **Hizkuntzan**, dagokigun eskubidea eta erantzukizuna kontuan izanik eta gizartean parte hartzeko mailak eta kanalak askotarikoak direla jakinik, gauzak egiten has daitezen bultzatzen zaie. **Etika eta erlijioaren** alorretan, ikastetxea hornitzen duten posterrei buruzko lana proposatzen zaie, eta gizartean parte hartzeko bide guztien inguruko hausnar-



ketari bidea irekitzen zaie. Gainera, DBH-ko bigarren zikoan proposatutako hezkuntza-materialean, frantse-serako haingat jarduera aurkezten dira.

Material hau praktikan jarritz lortu nahi diren helburu orokorrak hauek dira: materialaren inplementazioarekin lortu nahi diren **helburu orokorrak**:

- Baliabide naturalak zaintzea garrantzitsua dela ulertzea, eta ingurumearen kudeaketan eta ingurumen-arazoei irtenbidea bilatzen parte hartzeko norberak duen gaitasunaz jabetzea.
- Komunikazio-egoeretan parte hartzea eta elkarrizketaren oinarritzko arauak errespetatzea: entzutea, hitza hartzeko txandak, besteen iritziak... errespetatzea.
- Informazioa zenbait iturritatik lortzea, era autonomoan eta kritikoan, helburu bat lortzeko tresna gisa, lantzea, eta besteei era antolatuan helaraztea.
- Arlo desberdinetan (familia, auzoa, hiria...) parte hartzeko dauden bide eta kanalak ikertzea eta, talde-lanetan elkartasunezko eta tolerantziatzko jarrera izanik, erantzukizunez parte hartzea.
- Maila desberdinetan parte har daitekeela ikustea (norberaren lana, talde-lana...) eta hiritar gisa dagozkigun eskubide eta erantzukizunaren aurrean ekiteko prestatzea.
- Hainbat teknika, dinamika eta metodologia erabiliz, komunitatean era antolatuan erantzukizunez parte hartzea oso garrantzitsua dela ohartaraztea.

2. Zikloko irakasle eta gurasoentzat lan-proposamena

Zikloan gai hau lantzen hasteko irakasleek eta gurasoek gaiari buruz hausnartzeko denbora eta materiala edukitzea komeni dela uste dugu, baita helburu nagusiak zehazteko eta ikastetxearen errealitatera egokitze-ko ere.

Horretarako, orientazio gisa erabiltzeko bi dokumentu aurkeztuko dira. Lehen dokumentua “*Munduko hiritarrak. Gure munduko protagonistak gara*” (*Somos protagonistas de nuestro mundo*) da. Bertan hiru urte iraungo duen proiektuaren filosofia aurkezten da. Lortu nahi dugun hiritarraren kontzeptua definitzen da eta hezkuntza-estrategia batzuk zehazten dira.

Bigarren dokumentua “*Hiritartasun unibertsala lortzeko parte hartzea*” da. Hor, karpeta honetan aurkezten diren hezkuntza-materialen proposamenean oinarritutako filosofia aurkezten da. Material horiek badituzte osagarri batzuk ere: posterrak, bideoa, lehiaketa, mahai-jokoak eta ALBOANen aholkularitza- eta trebakuntza-zerbitzua.



Dokumentu horiek irakasleak eta gurasoak trebatzeko oinarri gisa erabil daitezke. Trebakuntza-saio horietan ikuspuntuak partekatu, testuinguru zehatzen arabera lan egiteko lehentasunak ezarri eta proposamenak osa daitezke.

Orain, hiru trebakuntza-saio proposatuko ditugu klaustroan, taldeka edo gurasoekin eztabaidatzeko. Orain, hiru trebakuntza-saio proposatuko ditugu klaustroan, taldeka edo gurasoekin lantzeko.

1. saioa:

Aurrez *"Munduko hiritarrok. Gure munduko protagonistak gara"* dokumentua emango zaie.

1. Taldekako dinamika: hiritartasuna hitzaren inguruan scrabble jokoa.
 - a. Agertzen diren hitzen inguruan eztabaidatzea.
 - b. Horien lehentasuna.
2. Hiritartasunari buruzko dokumentuaren inguruan galdera hauek planteatzea.
 - Dokumentuaren inguruko azalpenak edo iruzkinak.
 - Zer iradokitzen dizu hiritartasuna hitzak?
 - Gaiaren diagnostikoa:
 - Ikasgela, ikastetxea, irakasleak, gizartea.
 - Zer zerikusi dauka horrek zure heziketa-lanarekin?
 - Arazo hau barne hartzen duten zein proposamen eta ekimen ezagutzen dituzu?
 - Bi alderdi hauei dagokienez, zein proposamen iruditzen zaizkizu beharrezkoak edo iradokitzaileak?
 - Gaiak
 - Metodologia
3. Taldeka lan egin eta gero bateratu.

2. saioa:

1. Taldeka eta aurreko saioan esan dena kontuan hartuz, 'hiritartasuna ikastetxean eta ikasgelan' gaiaren inguruan diagnostikoa egingo da.
2. Bateratze-lana eta adostea.
3. Gai hau lehiaketan aurkeztea: hiritarren parte-hartzea.

“Hiritartasun unibertsala lortzeko parte hartzea” dokumentutik eta galdera eta iradokizunetatik abiatuko da.

Dokumentua lantzeko galderak

Gure klaseei dagokienez...

- Zein beste elementu sartuko zenituzke egoeraren diagnostikoan? Zein beste ezaugarri ikusten dituzu zure inguruan? Zein elementu positibo estimatzen dituzu gure munduan? Zein neurritaraino uste duzu diagnostiko honek balio duela zure ikasleen artean?
- Noiz ohartzen zara ikasleek erantzukizun-zentzu handiagoa dutela? Zein egoeratan? Nola susta dezakezu erantzukizuna ikasleen artean? Ikasleak gelan edo ikastetxean parte hartzeko zein beste bide sor daitezke?
- Zein argumentu erabiltzen dituzu ikasleek errespetua, guztien ongizatea eta elkar zain-
tzarekin zerikusia duten gaietan erantzukizuna izan dezaten? Zein iritzi duzu diagnostiko honekiko? Familian, ikastetxean, herrian, munduan... nola sentitzen zara zure eskubideak erreklamatzeko eta defendatzeko edo zure erantzukizuna arriskuan ipintzeko eta egoera horiek aldatzeko parte hartzean?

Gure buruari dagokionez...

→ *Nire parte-hartzea*

Guk baino hobeto inork ez daki zenbatekoa den gure gaitasuna eta parte hartzeko aukera, sarritan eska daitekeena baino harantzago dagoena: Zein dira nire ustez nire erantzukizunak hezkuntza-lanean parte hartzeari dagokionez? Zein daude nire “laneko” erantzukizunak baino harantzago?

Hezkuntza-komunitate baten partaide gisa: partaidetzarako zein bide eta mekanismo sustatu behar direla uste duzu? Nork du erantzukizun hori?

→ *Besteen parte-hartzeari dagokionez*

Pertsona guztiek parte hartzeko beharraren inguruan gero eta kontzientzia handiagoa dago, eta horrek besteen parte-hartzean eta eraginean garrantzi berezia hartzen du (bereziki behartsuenen parte-hartzean). Hezkuntza-arloan ikasleen, gurasoen, irakasle ez direnen, langileen, patronalaren eta abarren parte hartzeaz ari gara. Zein dira parte hartzeko bideak? (kontuan hartu aipatu ditugun talde desberdinak). Benetan zein aukera dituzte eragiteko erabakiak hartzerakoan? Nola susta dezakegu gutxiago parte hartzen duten taldeen partaidetza?

3. saioa:

1. Taldeka, galderak eztabaidatu eta ikastetxean edo hezkuntza-zikloan parte hartzeari buruzko diagnostikoa egin.
2. Bateratze-lana.
3. Helburu nagusiak zehaztu eta erabili beharreko materiala aurkeztu.

Ikastetxea girotzeko posterrak erabiliz gizartearen parte-hartzea modu sekuentzialean, mailakatuan eta koherentean lantzeko, ALBOANek posterrak honako ordena logikoan jartzea proposatzen du:

- Parte-hartzeak bere fruituak ematen ditu
- Gure esku dago gustuko ez duguna eraldatzea.
- Zu gabe ez dago puzzlerik
- Bizi parte hartuz
- Igo eta jaitsi parte hartuz
- Kostatu egiten da, baina merezi du
- Parte hartu bai, baina zein estilorekin?
- Pentsatu pluralean eta eskatu singularrean
- Aztertu parte-hartzearen bideak.
- Guk parte hartzen dugu. Nola? Non? Zertarako? Norekin?

3. Informazio gehiago lortzeko

Ondoren, web orrien zerrenda ematen dizugu. Horietan partaidetzaren inguruko beste baliabide interesgarri batzuk ematen dira eta informazio gehiago lortu ahal izango duzu.

Documentazioa

<http://www.mec.es/cide/rieme/documentos/pmurillo/pmurillo2.pdf> IKASTETXEETAN PARTE-HARTZEARI BURUZKO AZTERKETA. SEVILLAKO UNIBERTSITATEA.

<http://www.mec.es/cide/rieme/documentos/pmurillo/pmurillo2.pdf> IKASTETXEETAN PARTE-HARTZEARI BURUZKO AZTERKETA: LANBIDE ARTEKO LANKIDETZAREN ESPERIENTZIA.

<http://www.campus-oei.org/oeivirt/rie15a03.htm> INSTITUTU ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASLEEN PARTE-HARTZEA: HAIEN ERREALITERA HURBILTZEA



<http://www.clacso.org/wwwclacso/espanol/html/libros/juventud/juventud.html> GAZTEEN PARTE-HARTZE SOZIALA ETA POLITIKOA MENDE BERRIAN, LATINOAMERIKAKO IKUSPEGIA

<http://rehue.csociales.uchile.cl/publicaciones/enfoques/02/edu02.htm> ESKOLAREN (PUBLIKOA) EZINBESTEKO PARTE-HARTZEA, TXILEKO IKUSPEGIA.

<http://www.fao.org/Participation/espanol/ourvision.html> PARTE-HARTZEAREN ETA GARAPENAREN ARTEKO EZINBESTEKO LOTURA.

Araudiak

<http://www.mec.es/cesces/2.3.d.htm>. ESTATUKO ESKOLA-KONTSEILUEI BURUZKO INFORMAZIOA.

<http://www.mec.es/cesces/2.4.e.htm>. HEZKUNTZAREN PARTE-HARTZEA EUROPAKO BATASUNEAN

Hezkuntzako esperientziak

<http://www.uv.mx/iiesca/revista/suma34.html> INGURUMENEO HEZKUNTZA-ESPERIENTZIA, PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

<http://www.ericfacility.net/ericdigests/ed432408.html> GURASOEK ESKOLAN DUTEN PARTAIDETZA AZTERTZEN DUEN ARTIKULUA.

<http://www.participacion-ciudadana.or.cr/> COSTA RICAKO HIRITARREK PARTE HARTZEKO PROIEKTUA.

<http://www.campus-oei.org/salactsi/osorio2.htm> URAREN ARAZOAN HIRITARREK IZANDAKO ESPERIENTZIA.

<http://www.cma.junta-andalucia.es/menu04.html> INGURUMEN-HEZIKETAN PARTE-HARTZEARI BURUZKO ESPERIENTZIAK ETA DOKUMENTAZIOA ANDALUZIAKO JUNTAN.

<http://www.vivalaciudadania.org/todo.htm> PARTE-HARTZEA ETA HIRITARTASUNARI BURUZKO TAILERRAK ETA DINAMIKAK KOLONBIAN.

Parte hartzeko proposamenak

<http://www.pangea.org/ai-cat/educadors/2/textos-actua.html> AMNESTY INTERNATIONAL-EN PROPOSAMENA.

http://espanol.ashoka.org/Public/IG_ParticipacionCiudadana.asp ASHOKA-REN (SUSTATZAILE SOZIALAK) PROPOSAMENA.

<http://www.cje.org/actividades.nsf/sub!readform&cat=participacion&subcat=asociacionismo>. ESPAINIAKO GAZTERIA KONTSEILUARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA HAREN PROPOSAMENAK.

<http://www.enredate.org/esp/htm/index.htm>. UNICEFEN PROPOSAMENA IHESARI BURUZKO KANPAINARAKO.

<http://www.icftu.org/petition.asp?Name=childlabour&Language=ES> CIOSLAREN PROPOSAMENA HAURREN LANAREN KONTRAKO KANPAINAN PARTE HARTZEKO.

<http://www.participar.net/> Sareko PARTAIDETZAREN ESPERIENTZIA.

<http://www.unicef.org/voy/es/meeting/lab/labhome.html> HAURREN LANAREN INGURUKO PROPOSAMENA.


http://www.intermonoxfam.org/html/cam_zon.html INTERMON-EN PROPOSAMENA.



Matematika



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Hainbat diziplina batera hartuta, matematikako eta gizarteko kontzeptuak eta prozedurak lantzea.
- Informazio estatistikoak aurkeztea eta interpretatzea, adierazpen grafiko egokiak erabili behar direla kontuan hartuta.
- Datuak biltzeko teknikak erabiltzea, hainbat egoerari buruzko informazioa izateko eta datu horiek grafikoan eta zenbakien bidez aurkezteko eta horien inguruko iritzia emateko.
- Gizartean parte-hartzeko dauden bideen inguruan hausnartzea, zenbakizko datuen interpretazioa abiapuntutzat hartuta.

Jarduerak

1. jarduera:

“Datuak interpretatuko ditugu”

Deskribapena:

Ikasleak taldeka bildu eta Giza Garapeneko Txostenaren (NBGP, 1998) arabera urteko gastuen datuen taula emango zaie. Munduko lehentasunak zein diren labur azaltzen du taulak. Ikasleek datuak interpretatu eta ondorioak atera beharko dituzte; horretarako, dolarretan dauden zifrak eurotan jarri beharko dituzte eta taulako datuak grafikoetan jarri beharko dituzte. Datuak baloratuko dituzte eta zifra horiek banaka eta taldeka adierazten duten errealitatean eragiteko gizartean parte hartzeko dauden aukeren inguruan hausnartuko dute.

Materiala:

1.1. fitxa.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko saio bat.

2. jarduera:

“Informatu eta jardun!!!”

Deskribapena:

Ikasleak lau taldetan banatuko dira eta talde bakoitzari landu beharreko kasu bat emango zaio. Taldekoek pentsatu behar dute GKE bat osatzen dutela, eta ikerketa bat egin behar dute herrialde bati buruz. Ondoren, Nazio Batuen Erakundeko Batzar Nagusian jarduteko proposamen bat aurkeztu beharko dute. Horretarako, lehen pausoa bakoitzari tokatutako herrialdearen gaur egungo egoerari buruzko datu hauek bilatzea izango da: alfabetizazio-indizea, bizi-itxaropena eta helduen alfabetizazio-tasa (giza garapenaren indizea). Herrialdeko datuak sexuaren arabera alderatzeko eska dakieke (generoaren garapenaren indizea). Ikerketa egin ondoren, taldeek txosten estatistikoa egingo dute eta herrialde horren errealitatea adierazten duten grafikoak aurkeztuko dituzte. Azkenik, datuak aztertu ondoren, GKE bakoitzak ekintza bat proposatu beharko du detektatutako beharretako bat konpontzeko.

Materiala:

2.1 fitxa, Internet, bibliografia.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora:

60 minutuko bi saio.

Iradokizuna :

Herrialdeei buruzko informazioa orri honetan bila dezakezue: http://www.eurosur.org/guia-del-mundo/01_paises.htm; eta giza eta generoaren garapenaren indizeari buruzko informazioa, berriz, beste honetan: <http://www.undp.org/hdr2002/espanol/>



1.1 Fitxa

Inoiz pentsatu duzue zertan gastatzen dugun dirua?

Giza Garapenaren Txostenaren arabera (NBGP, 1998), munduko biztanleen lehentasunak hauek dira. Aztertu datu hauek. Adi! Kontuan izan zifrak dolarretan daudela.

Urteko Gastuak

Kosmetikoak estatu batuetan	8 Mila milioi dolar
Pertsona guztientzako oinarrizko heziketa	6 Mila milioi dolar
Izozkiak europan	11 Mila milioi dolar
Pertsona guztientzako ura eta saneamendua	9 Mila milioi dolar
Maskotentzako elikagaiak europan eta estatu batuetan	17 Mila milioi dolar
Oinarrizko osasuna eta elikadura	13 Mila milioi dolar
Zigarroak europan	50 Mila milioi dolar
Edari alkoholdunak	105 Mila milioi dolar
Droga estupefazianteak	400 Mila milioi dolar
Gastu militarra munduan	780 Mila milioi dolar

Taldean pentsatu eta lantzeko

- Harritu egin zaituzte datuek?
- Bazenekiten diru gehien armatan eta gastu militarrean inbertitzen zela?
- Taula hori ikusita zein ondorio atera duzue?
- Pertsona guztientzako oinarrizko heziketan baino zenbat aldiz gehiago inbertitzen da gastu militarrean?
- Kalkulatu zifrak eurotan eta irudikatu datuak taulatan grafikoen bidez.
- Datu horiek ikusita, zein gauza egiten ari dira dagoeneko?
- Nola parte har dezakezue zifra horiek aldatzeko?
 - banaka nola esku hartu?
 - taldeka edo era antolatuan nola esku hartu?
- Pertsona guztien heziketaren aldeko kanpainaren berri baduzu? Bilatu informazioa eta proposamen gehiago aurkituko dituzu.

2.1 Fitxa

1. taldea

"Afrika mugarik gabe" GKEko kideak zarete eta Nazio Batuen Erakundearen Batzarrean arrazoitutako proposamen bat egin behar duzue, Mozambikeko egoeran lehentasuna eman diozuen arazoa konpontzen saiatzeko. Horretarako, gaur egun Mozambiken gai hauei buruzko egoera zein den aztertu behar duzue:

- Alfabetismo-indizea
- Bizi-itxaropena
- Helduen alfabetatze-tasa

Ikerketa egin ondoren, egin txostena; lan horretan, egin herrialde horren egoeraren laburpena eta eman datuak estatistika-taulatan eta grafikotan. Egindako analisiaren arabera, gabezia edo behar horiei aurre egiteko ekintzak proposatu.

2. taldea

"Peru ongi doa" GKEko kideak zarete eta Nazio Batuen Erakundearen Batzarrean arrazoitutako proposamen bat egin behar duzue, Peruko egoeran lehentasuna eman diozuen arazoa konpontzen saiatzeko. Horretarako, gaur egun Perun gai hauei buruzko egoera zein den aztertu behar duzue:

- Alfabetismo-indizea
- Bizi-itxaropena
- Helduen alfabetatze-tasa

Ikerketa egin ondoren, egin txostena; lan horretan, egin herrialde horren egoeraren laburpena eta eman datuak estatistika-taulatan eta grafikotan. Egindako analisiaren arabera, gabezia edo behar horiei aurre egiteko ekintzak proposatu.

3. taldea

“Janavak” GKEko kideak zarete eta Nazio Batuen Erakundearen Batzarrean arrazoitutako proposamen bat egin behar duzue, Indiako egoeran lehentasuna eman diozuen arazoa konpontzen saiatzeko. Horretarako, gaur egun Indian alderdi hauei buruzko egoera zein den aztertu behar duzue:

- Alfabetismo-indizea
- Bizi-itzaropena
- Helduen alfabetatze-tasa

Ikerketa egin ondoren, egin txostena; lan horretan, egin herrialde horren egoeraren laburpena eta eman datuak estatistika-taulatan eta grafikotan. Egindako analisiaren arabera, gabezia edo behar horiei aurre egiteko ekintzak proposatu.

4. taldea

“Gure munduko protagonistak” GKEko kideak zarete eta Nazio Batuen Erakundearen Batzarrean arrazoitutako proposamen bat egin behar duzue, Espainiako egoeran lehentasuna eman diozuen arazoa konpontzen saiatzeko. Horretarako, gaur egun alderdi hauei buruzko egoera zein den aztertu behar duzue:

- Alfabetismo-indizea
- Bizi-itzaropena
- Helduen alfabetatze-tasa

Ikerketa egin ondoren, egin txostena; lan horretan, egin herrialde horren egoeraren laburpena eta eman datuak estatistika-taulatan eta grafikotan. Egindako analisiaren arabera, gabezia edo behar horiei aurre egiteko ekintzak proposatu.


Ikerketa egin ondoren hausnartzeko...

- Zer iruditu zaizkizue beste taldeen proposamenak?
- Jende asko sartu duzue zuen proposamenean? Edo, gutxi batzuentzako ekimena da?
- Eraitza hobeak lortzeko uste duzue jende askok parte hartzea komeni dela?
- Hobetu behar zela uste zenuten zerbait aldatzeko jardueraren batean parte hartu duzue inoiz? Nolako esperientzia izan zen? Zein ekarpen egin zizun?
- Zure inguruan zerbait aldatuko edo hobetuko zenuke? Zer egingo zenuke kasu horretan?

Gizarte-zientziak



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Gizartearen parte-hartzea eraginkorra izateko, antolatzeak zein garrantzia duen aintzat hartzea.
- Ingurua aldatzeko eta hobetzeko lanean, hiritarren ardura pertsonala onartzea.
- Nahi den egoera lortzeko bide gisa, gizartearen parte-hartzeak duen garrantzia baloratzea.
- Dokumentu idatzietan, gune geografiko jakin batzuetako gertaera historikoak bilatzea zein zaila den ikustea.
- Era bateko eta besteko gertaera historikoak, errealitateak eta lurraldeak deskubritzeko eta ezagutzeko jakin-mina garatzea.
- Taldean azterketa eta ikerketa sinpleak planifikatzea eta egitea.

Jarduerak

1. jarduera: “Parte hartu aldatzeko”

- Deskribapena:** Parte-hartzearen benetako kasu bat kontatzen duen 1.1 fitxako testua irakurri ondoren, gizarteko hainbat esparrutan parte hartzeko antolatzeak duen garrantziari buruz hausnartzeko galdera batzuk planteatzen dira.
- Materiala:** 1.1. fitxa. **Dinamika:** Banakakoa eta taldekakoa.
- Denbora:** 50 minutuko saio bat.

2. jarduera: “Gure errealitatea, parte hartzeko aukerak”

- Deskribapena:** Ikasleei auzoan ibilaldi bat egin dezatela proposatzen zaie, zein baldintzatan dagoen aztertzeko. Honetan jarri beharko dute arreta: zein den benetako egoera, zein izango litzatekeen egoera gogokoena, zein eragilek esku hartzen duten eta auzoko baldintzak hobetzeko ordu-ra arte zein ekintza antolatu diren. Azkenik, benetako egoera aldatu eta egoera gogokoena lortzeko hiritarrek parte hartzeko zein bide dauden pentsatzea proposatu behar zaie.
- Materiala:** 2.1 fitxa, papelografoa, errotuladoreak, etab. **Dinamika:** Banakakoa eta taldekakoa.
- Denbora:** 50 minutuko bi saio.

3. jarduera: “Historia ezkutukoena”

- Deskribapena:** Irakasleek irakasgaiaren ikuspuntutik garrantzitsua den garai historiko bat aukeratuko dute (adibidez, Iraultza Frantsesa); ikasleek, taldeka, garai berean beste herrialdeetan zein gertaera garrantzitsu izan ziren ikertu beharko dute. Talde bakoitzari herrialde jakin baten inguruko lana egiteko eskatuko zaie, eta ez dira aukeratuko kontinente bereko bi herrialde. Bildutako informazioarekin “*kronika historiko*” bat egin beharko dute. Ondoren, taldeka, galdera batzuk emango zaizkie gaiaren inguruan hausnartzeko; Afrika kontinenteari, ezezagun handiari, buruzko ikerketa bat egiteko ere proposatuko zaie. Azkenik, hitzik ez duten horiek (herrialdeak, talde zehatzak, etab.) hitz egiteko eskubidea nola lor dezaketen hausnartzea proposatuko zaie. Parte-hartzea hobetzeko, proposamenak ikastetxean aurkez ditzakete.
- Materiala:** 3.1 fitxa, bibliografia, Internet. **Dinamika:** Taldekakoa.
- Denbora:** 50 minutuko hiru saio.
- Iradokizunak:** Artikulu bat idazten badute, Alboanek planteatutako zentroen arteko hezkuntza-proposamenen aurkez dezakete.

1.1. Fitxa

Irakurri testu hau banaka

Cardedeu Bartzelonatik gertu dagoen hamaika mila biztanleko herri polit bat da, eta hango Haur Kontseilua kexatu egin zen udalean, jende askok erabiltzen zuen parke bat haurrak eskolatik irteten zirenean ureztatzen zutelako. Hau da, haurrak parkean ibil zitezkenean, putzuz beteta egoten zen. Jakina, haurren kontseiluaren kexa jaso ondoren, berehala aldatu zuten parkea ureztatzeko ordutegia.

Haur horiek askotan idazten dizkiete gutunak alkateari eta hainbat zinegotziri, herriko komunikabideei, etab. Haiei eta haien adineko hurrei zuzenean eragiten dieten kontuak salatzen edo eskatzen dituzte, baina, askotan, txikienei, helduei eta herritar guztiei eragiten dieten gaiei buruzkoak ere izaten dira. Batzuetan, nahi dutena lortzen dute; besteetan, ez; eta, beste batzuetan, zati bat bakarrik lortzen dute. Baina, hala ere, Haurren Kontseilua dinamizatzen duten haurrak eta pertsona helduak arduratu egiten dira haien hitza entzun dadin, eta erantzuna eta azalpenen bat jasotzen saiatzen dira, hori edozein dela ere.

Haurren Kontseiluak hiritarren eguneroko bizitzarekin lotutako alderdien inguruan hausnarketa egiteko, hitz egin eta proposamenak egiteko lekuak dira, eta alderdi horiek hiriko biztanleek (haurrak, helduak, adinekoak, emakumeak...) haien bizi-baldintzak hobetzeko beharrezkoak dira. Azken batean, hitza erabiltzearen bidez eta lankidetzak-ekintzen bidez bizitza sozialean parte hartzea da Haurren Kontseilu batean parte hartzea.

J. Trilla, A. Novella. "*Educación y participación social de la infancia*".
Revista Iberoamericana de Educación. 26. zenbakia. 2001eko abuztua

Zertxobait pentsatzeko...

- Batzordeak esku hartu izan ez balu emaitza berberak lortuko liratekeela uste duzue? Zergatik?
- Proposatzeke, protesta egiteko, salaketak egiteko, zerbait eskatzeko pertsonak antolatzeari zein garrantzi ematen diozue?
- Pertsonak zerbaiten aurka egiteko antolatu diren antzeko kasurik ezagutzen duzue? Hala ez bada, antzeko kasuak ezagutzeko ikerlan bat egin dezakezue.
- Nola esku har dezakezue zuen ikastetxean eta auzoan?

2.1. Fitxa

Goazen kalera eta has gaitezen lanean...

Orain hitzetatik gertaeretara pasatuko gara. Aurreko kasuarekin gauza garrantzitsuak ikasi ditugu: ongi ez dagoela uste duguna alda daitekeela; norberarena eta besteena defendatzea, proposatzea, eskatzea, protesta egitea, entzunaraztea garrantzitsua dela...

Ideia-jasa batekin hasiko gara zein gauza iruditzen zaizkigun aztertu beharrekoak erabakitzeko. Egindako zerrendan, interesgarrienak lehenetsiko ditugu, eta gai horiei buruzko datuak emango dizkiguten informatzeko eta parte hartzeko guneetara joango gara; gainera, errealitatea behatu eta aztertu egingo dugu.

Orain, atera gaitezen gure hiri edo herrira eta egin dezagun azterketa bat. Hainbat gauza aztertuko ditugu badauden edo ez eta zein egoeratan dauden ikusteko. Lan hori egiteko, jarri taldeka.

Oso garrantzitsua da behatzaile onak izatea. Gune publikoetan, hondakinak jasotzeko edukiontzietan, zirkulazioan eta seinaleetan... jarriko dugu arreta. Auzoko/herriko ibilbidean, behar dituzuen datuak eta informazioa jaso, eta, amaieran, taldekoekin bateratze-lana egin.

Seguru asko, hainbat gauza ongi dabiltzala ikusi duzue, eta beste batzuk ez dabiltzala hain ongi. Aukeratu horietako bat, nahi duzuen, eta pentsatu hainbat irtenbide edo proposamen, auzoko bizitza hobetzeko. Zuen auzoaren inguruko diagnostikoa egin ondoren, aldatu beharrekoa aldatzeko nahi duzuen bezala parte hartzeko antolatzea da kontua. Hauxe egin dezakezue: egunkarietan artikulatu bat idatzi, udal-arduradunei gutun bat bidali, protesta-kanpaina bat antolatu... Zuen irudimenaren esku utziko dugu.

Benetako egoera	
Nahi dugun egoera	
Esku hartzen duten eragileak (politikoak, bizilagunak, enpresak)	
Egoera hobetzeko aurretik egindako ekintzak	
Parte hartzeko era • Metodoa • Baliabideak • Egutegia	

Zuen parte-hartzea eraldatzailea izan dadila!

3.1. Fitxa

1 XVIII. mendearen amaieran gaude, zehazki 1789. urtean. Nazio mailako egunkari bateko nazioartea saileko kazetari berriemaileak zarete. Zuen egunkariak beste kontinente bateko herrialde batera bidali zaituzte gaurkotasuna duen gai bati buruzko erreportajea egiteko.

2 Gai hauek kontuan hartuta idatzi erreportajea:

- Herrialde horretan nola antolatzen dira eta nola hartzen dituzte erabakiak?
- Zein da herrialdeko egoera ekonomikoa eta soziala?
- Hango jendeak zein eratarara parte hartzen du?
- Eta, mundu mailan, herrialde horrek nola parte hartzen du?
- Herrialde horri buruzko zein informazio du jendeak?
- ...

3 Hausnarketa egiteko galdera batzuk:

- Erreportajea aipatu duzuen herrialde horri buruzko informazioa biltzea erraza izan da? Zergatik uste duzue izan dela horrela?
- Zuen ustez, zein herrialderi buruzko informazioa bila daiteke errazago?
- Historian, munduko hainbat lekutan gertaera asko izan dira (gerrak, hitzarmenak, etab.). Hala ere, horietako batzuei buruz asko idatzi da (liburuetan, prentsan...), eta beste batzuei buruz, berriz, ezer ez. Europari eta Amerikari buruz asko dakigu, baina, esate baterako, Afrikari buruz? Badakigu kontinente hori zein herrialdek osatzen duten? Haien kultura, antolatze eta parte hartze era, historia badakizkigu?
- Hitzik ez duten herrialdeei hitz egiteko aukera emateko zer egin dezakegu? eta hitzik ez duten taldeei aukera hori emateko?

Jar dezagun arreta Afrikan, ezezagun handian, eta pentsa dezagun nola ezagutaraz ditzakegun kontinente horren ezaugarri batzuk: kultura, ohiturak, etniak, hizkuntzak, antolatze erak, landutako proposamenak...

Afrikan antolatu diren mugimenduei buruz ikerketa egin ezazue (apartheid...), eta aukeratu era erakargarri bat klasean aurkezteko. Aurkezpena egin ondoren, Afrikari buruzko egun berezia egin dezakezue eskolan, eta hainbat jarduera egin ditzakezue ikastetxean kontinente horren errealtatea ezagutarazteko.


Apaintzeko informazio- eta girotze-kartelak egin ditzakezue, kontinenteko ohiko jardueren inguruko jaialdi bat antola dezakezue, haien aberastasun etnikoa eta kulturala aurkez dezakezue, haien parte hartze erak azal ditzakezue eta hitzik ez duten herrialdeei, pertsona-taldei... hitz egiteko aukera emateko proposamenak egin ditzakezue.

EGIN BIDEA ZUEN IRUDIMENARI!!

Gorputz-hezkuntza



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Gorputzak espresatzeko duen aberastasuna eta mugimendua –komunikatzeko bide eta espresio sortzaile gisa– baloratzea eta erabiltzea.
- Parte-hartze sozialaren mugak probatzea.
- Norberaren ekintzak taldeko ekintzekin koordinatzea eta lankidetzara eraginkorra izateko estrategiak behar bezala interpretatzea.
- Lankidetzako eta errespetuzko jarrera garatuz, jolasetan parte hartzea.

Jarduerak

1. jarduera:

“Parte hartu nahi dut”

Deskribapena: Taldeka, hiritarrek parte hartzeko jarduera jakin bat aukeratu behar da (manifestazioa egitea, protesta edo sentsibilizazio sozialerako kanpaina egitea, sinadurak biltzea, egunkarietan edo Interneten iritzi-artikulu bat argitaratzea, etab.). Talde bakoitzak mimika erabiltzea aurkeztuko du aukeratutako jarduera. Antzezpenean, beste talde bateko kideak antzeztu hasiko dira, eta, mimikaren bidez, besteak antzeztu ari diren ekintza parte-hartzailea mugatzen saiatuko dira. Helburua hau da: ikasleak sentiaraztea guztion funtsezko eskubide bat (gizartean parte hartzeko eskubidea) urratu egin dela.

Ondoren, taldeek 1.1 fitxan formulatutako gaiak komentatuko dituzte.

Materiala: 1.1. fitxa.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko saio bat.

Iradokizuna: Interesgarria eta komenigarria izan daiteke musika lasaiarekin erlaxazio-teknika bat eginez hasia jarduera.



2. jarduera:

“Ezinezko zeregina”

Deskribapena: Ikasleak bi talde handitan banatu eta bakoitzak zeregin bat izango du.

A taldea: Taldeko partaide guztiak gainazalen baten gainean (eserlekua, mahaia) gutxie-
nez bost segundoz egotea da helburua; gainazal hori nabarmen txikia izango da
taldeko partaide-kopuruarentzat. Horretarako, antolatu eta elkarrekin lan egin
beharko dute, eta hainbat estrategia probatu beharko dituzte.

B taldea: Lurrean alfonbra bat jarriko dugu. Oso garrantzitsua da alfonbra erraz irristatzea
lurrean, eta taldeko guztiak gainean zutik justu-justu sartzeko adinako tamaina
izatea. Alfonbraren gainean dauden guztiek beren artean antolatu behar dute,
alfonbra bi marraren artean joan dadin. Hau da, ibilbide bat egin behar dute
alfonbra gainean.

Kasu bakoitzeko helburuak lortu ondoren, talde bakoitzak beste taldeak egindakoa egin
beharko du.

Materiala: Eserlekua, mahaia edo antzeko zerbait eta alfonbra, 2.1 fitxa.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko saio bat.

Iradokizuna: : Jokoa azaltzeko garaian, taldekoek haien buru izango den pertsona bat aukeratzeko pro-
posa daiteke; pertsona horrek taldeak gauzatu beharreko ekintzak antolatu beharko ditu.
Azkenik, eztabaidatu egin daiteke, esate baterako, 2.1 fitxan aipatutako gaien inguruan.

1.1 Fitxa

Antzezpena egin ondoren taldean eztabaidatzeko

- Nola sentitu zarete taldeko antzezpena egiteko garaian?
- Eta beste taldekoei mugak jartzen aritu zaretenean?
- Gure gizartean parte hartzeko eskubidea garrantzitsua dela uste duzue?
- Eskubidea izateaz gain, gizartean parte hartzea pertsona guztion ardura dela uste duzue? Zergatik?
- Batzuetan, taldeek edo pertsonak gizartean parte hartzeko dituzten aukerak galarazi edo mugatu egiten direla uste duzue?
- Hori gertatu izan dela edo gertatzen dela uste duzue? Kasu zehatzik ezagutzen duzue?

2.1 Fitxa


Eztabaidarako galderak

- Ados jartzea eta erabakiak hartzea erraza izan da?
- Taldea nola antolatu dela uste duzue?
- Helburu komun bat lortzeko antolatu egin behar dela uste duzue? Zergatik?
- Zein iritzi duzue taldea koordinatzeko pertsona bat izateari buruz?
- Zuen eguneroko bizitzan, zein kasutan parte hartzen duzuela uste duzue?, eta zein kasutan ez duzuela parte hartzen? Zergatik?

Ingelesa



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Taldearen barruan pertsona bakoitzak duen balioa ulertzea.
- Bakarka eta ulertzen duzula irakurtzea eta irakurketa horren ondorioz ahozko mezu koherenteak sortzea.
- Pertsonak gizartean parte hartzeak duen garrantziaz hausnartzea.

Jarduerak

1. jarduera:

Have you thought? ¹

Deskribapena:

Ikasleei 1.1 fitxako testua banatu eta kasu bakoitzean zein letra ordezkatu den asmatzeko eskatzen zaie. Ondoren, taldeka, testuko gaiaren inguruan hausnartzeko esango zaie (zein eragin du gure parte-hartzeak?, pertsona guztiek gizartean parte hartzea garrantzitsua dela uste duzue?). Azkenik, talde bakoitzak telebistarako aurkezpen bat prestatuko du, parte-hartze sozialari buruzko ondorioak eta iritziak ezagutarazteko.

Materiala:

1.1. fitxa.

Dinamika:

Taldekakoa.

Denbora:

50 minutuko bi saio.

¹ Iturria: Betty/Colet, Pierre, Des portes s'ouvrent (Namurko Unibertsitatea, Belgika, 1984) lanaren egokitzapena.

1.1. Fitxa

Have you thought?

Thxrx's nothing wrong with this typxwritxr xxcxpt for onx kxy that doxsn't work propxrlly. Thx othxr forty-fivx arx pxrfxctly all right, but this onx kxy that goxs wrong makxs a big diffxrxncx to thx txxt, don't you think?

In thx samx way, you might say that you arx no morx than onx unit and it makxs no diffxrxncx whxthxr or not you co-opxratx with thx rxst. But this way of looking at things is wrong: thx rxst of us nxxd you, wx rxly on you.


Nxxt timx you think you arx not important or that somxonx or somxthing xlsx (human bxing, animal, country, xtc.) isn't xithxr, rxmxmbxr this typxwritxr.

And thxn aga%n, %mag%n thxrx arx two kxys that don't work propxrlly... &nd wh&t %f thxrx wxrx fo\$r &t oncx?

Natur zientziak



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Ingurumeneko aldaketen eragile nagusiak gizakiak direla onartzea.
- Banaka eta taldeka naturan eta gizartean parte hartzeko erak ikertzea.
- Gatazka-egoerak horietan bakean eta aktiboki parte hartuz konpontzea.
- Baliabide naturalen eta horiek kontserbatzearen garrantzia ulertzea.

Jarduerak

1. jarduera:

“Eta zuk zer egiten duzu?”

Deskribapena:

Gizakien ekintzak herrian, gizartean eta munduan sortzen dituen eraginei buruzko hausnarketa egingo dute hasieran. Ondoren, gure munduan, ingurumenari dagokionez, positiboki parte hartzeko zein era ditugun ikertuko dugu. *Murrizteari, berriz erabiltzeari eta birziklatzeari buruzko arauen* (3 R izeneko arauen) inguruko eta presio soziala egiteko mar txan dauden kanpainen inguruko dokumentazioa bilatzea proposatzen da. Azkenik, informazio hori labur jasoko duen kartela edo horma-irudia egin behar dute taldeka. Gaiaren garrantzia islatzea da helburua, baita gainerako ikasleak parte har dezaten animatzea ere. Horretarako, kartelak zentroko hainbat tokitan jarriko dira.

Materiala:

1.1 fitxa, Internet, kartoi mehea, errotuladoreak, guraizeak, kola...

Dinamika:

Taldekakoa.

Denbora:

60 minutuko bi saio.

2. jarduera:

“Uraren arazoa”

Deskribapena:

Eskualde batean uraren horniketak zein arazo duten aurkeztuko da. Kasua irakurri ondoren, rol-joko bat planteatuko da; ikasleak lau taldetan banatu eta egoera horrek kalteetako taldeekin identifikatuko dira. Taldeka, eragina zein modutan jasaten duten aztertuko dute, eta gaiari buruz eztabaidatzeko deitutako bileran defendatuko duten jarreraren argumentuak komentatuko dituzte. Talde bakoitzak bi pertsona aukeratuko ditu taldearen iritzia aurkezteko. Talde bakoitzak bere iritzia eman ondoren, erabakiak hartzeko prozesuari buruz hausnartzeko galdera batzuk proposatuko dira.

Materiala:

2.1. fitxa.

Dinamika:

Taldekakoa.

Denbora:

50 minutuko saio bat.



3. jarduera: ¡Nunca mais!

- Deskribapena:** Egunerokotasuna duen gertaera bat planteatuko zaie ikasleei, esate baterako, Prestige itsasontziaren kasua. Kasu hori pertsonak inguru naturalean duten eraginaren adibide garbia da. Gertaerari berari buruzko informazioa bilatzeko eskatzen zaie eta inguruko eragileek (gobernuak, arrantzaleen kofradiak, boluntarioak...) egin dutena aztertzeko planteatuko zaie. Eragileek nola parte hartu duten eta horren inguruan zein balorazio egiten duten aipatzeko proposa dakieke. Gainera, ikasleek parte har dezaketen kanpainei buruzko informazioa jasotzeko eskatuko zaie. Horrekin guztiarekin, ikastetxeko gainerako ikasleak informatzeko panel bat egin dezakete.
- Materiala:** Bilaketak egin aldizkarietan, hemerroteketan edo Interneten (orri batzuk: <http://www.ecologistasaragon.org/prestige/> o <http://www.nuncamais.org/>).
- Dinamika:** Banakakoa eta taldekakoa.
- Denbora:** 50 minutuko bi saio eta saioen arteko denbora.

1.1 Fitxa

Inoiz pentsatu duzue gure ekintzek duten ondorioen eta eraginaren inguruan?

Hausnar dezagun une batez horren inguruan. Zer gertatuko litzateke...

- ... mendiko sua itzaltzean konturik izango ez bagenu?
- ... gure hiriko kaleetan zaborrak botako bagenu?
- ... ura arduraz kontsumituko ez bagenu?
- ... sortzen dugun zaborrean aukeraketarik egingo ez bagenu?
- ...

Argi dago! Gure jokaerak mundu osasuntsuagoa eraikitzen lagun dezake, edo, bestela, horri kalte egin diezaioke.

Hori norberaren esku dago!

Eta zuk zer egiten duzu?

- Normalean birziklatutako papera erabiltzen duzu?
- Zabor organikoa beste zaborretatik bereizten duzu?
- Mendira joaten zarenean, zaborra jasotzen duzu?
- Zer egiten duzu gastatutako pilekin?
- Sprayak edo aerosolak erabiltzen dituzu?
- Bilgarri edo ontzi asko dituzten produktuak erosten dituzu?



Mundu jasangarria gure portaeraren bidez eraikitzeko positiboki parte hartzeko zein era ditugun aztertuko dugu orain.

Seguru asko, behin baino gehiagotan entzun dituzue **3 R** (gaztelaniaz, Reducir, Reutilizar eta Reciclar) izeneko arauari buruzko kontuak:

- **Gure kontsumoa murriztea.**
- **Berriz erabiltzea.**
- **Birziklatzea.**

Interneten eta ekologiari buruzko aldizkarietan, gai honi buruzko informazioa bila dezakezue. 3 R izeneko araua betetzeak zein etekin ekartzen dituen ikertzeko proposatzen dizuegu.

- Zergatik da garrantzitsua murriztea, berriro erabiltzea eta birziklatzea?
- Zer egiten dugu ingurumena hobetzeko?
- Nola egin dezakegu?
- Pauso horiek segi ditzagun bultzatzeko zein baliabide ditugu gure eskura? (edukiontzia, informazioa...)
- Birziklatzearen inguruko datuetan zein zeregin dute kontsumitzaileak?
- Zenbat jendek birziklatzen du? Zein eragin du horrek?
- Gaiaren inguruko zein kanpaina ezagutzen dituzue?

Taldeka, bildu gaiari buruzko informazioa eta erantzun galdera horiei. Ondoren, gainerako jendea informatzeko, egin horma-irudi bat edo kartel bat. Egindako kartelak ikastetxeko hainbat lekutan jar ditzakegu, gure ikaskideak ingurumena errespetatzeko gurekin parte har dezaten animatzeko.

Esate baterako, web hauetan aurkituko duzue gaiari buruzko informazioa...

- www.analitica.com/vas/1999.12.5/ecologia/49.htm
- sepultura.semarnat.gob.mx/dgmrar/dsrsc/rm/sabermas.htm
- icarito.tercera.cl/especiales/medio_ambiente/consejos/tres_r.htm - 25k
- www.tusaludpr.com/mundo.htm

2.1 Fitxa

Azken urte honetan, zuek bizi zareten eskualdean euri gutxi egin du; horrek lehorte larria eragin du. Gainera, inguruko ibaietako urak poluituta daude, eta, ondorioz, kontsumoa gutxitu eta mugatu egin behar da nahitaez.

Bertako biztanleok oso kezkatuta zaudete arazoarekin. Iturriko ura ezin duzue edan, eta nahitaez botilaratutako ura erosi behar duzue. Hainbat neurri hartu dira eta ez duzue iturriko urik egun osoan. Labore asko galdu egin dira...

Gobernuak irtenbide bat proposatu du arazoa konpontzeko: urtegi bat handitzea. Horrela, eskualdeko hirieta-ko biztanleek ez dute egarririk izango eta uraren horniketa konpondu egingo da neurri handi batean.

Hainbat elkarteri dei egin zaio gaia aztertzeko eta erabakiren bat hartzeko.

Banatu lau taldetan eta hausnartu aurkeztutako gaiaren inguruan. Pentsatu zuen jarrera defenditzeko argumentu batzuk, eta aukeratu bi pertsona deitutako bileran zuen ordezkari izateko.

1. Taldea Urtegiaren inguruko herri batean bizi zarete, eta urtegia handitzeak kalte handiak eragingo dizkizue. Zuetako askok zuen etxea utzi beharko duzue, urtegia handitzen bada, eta herri horretatik joan egin beharko duzue.

2. Taldea Eskualdeko hiri batzuetan bizi zarete. Urtegia handitzeak onura asko ekarriko dizkizue, uraren horniketa hobea izango baituzue. Urtegia handitzen ez badute, zuen egoera oso larria izango da eta, agian, egarriak egongo zarete.

3. Taldea Talde ekologista bateko kideak zarete, eta urtegia handitzearen aurka zaudete, zuen uste ingurumena erabat hondatu egingo duelako.

4. Taldea Arazo hori dagoen eskualdeko autonomia erkidegoko gobernuan egiten duzue lan. Zuen ustez, arazoa konpontzeko erarik egokiena urtegia handitzea da.


Bilera amaitu ondoren...

- Zein erabaki hartu duzue?
- Nola lortu duzue akordioa? Behar bezala egin dela uste duzue?
- Erabakiak hartzeko garaian taldeetako ordezkari guztiek aktiboki parte hartu dutela uste duzue?
- Hartutako erabakiak maila berean egiten die mesede talde guztiei?
- Erabaki horrekin kaltetutako pertsonen egoera konpontzeko, zer egin daiteke?
- Ordezkatu gabeko talderik badagoela uste duzue?
- Erabakiak hartzeko, nork du indar gehien?
- Zuen ustez, nork hartu du azken erabakia?
- Hain erabaki garrantzitsu hartzeko, guztiek parte hartu behar dutela uste duzue?
- Nola errespetatzen dugu parte-hartzea eta eraginkorrak gara eguneroko bizitzan?
- Aipa ditzakezu parte-hartze arduratsuak izan behar dituen ezaugarri batzuk?
- Horrek guztiak gelarako, zentrorako edo familiarako ideia bat ekarri dizue?

Hizkuntza



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Parte hartzeko dauden mailez jabetzea: banakakoa, taldekakoa...
- Askotariko informazio-iturriak berrikustea eta aztertzea.
- Irratiko mintzaira maneiatzea eta erabiltzea.
- Oro har, komunikabideek eta, bereziki, irratiak duten garrantziaz eta eskaintzen dituzten aukerez jabetzea.
- Elkarriketak egiteko eta erabiltzeko trebetasuna lortzea.
- Inguruan dauden esparruetan parte-hartze sozialerako dauden bideak ikertzea eta ezagutzea.
- Hiritar gisa dagozkigun eskubidearen eta arduraren aurrean jarduteko motibatzea.

Jarduerak

1. jarduera:

“Gure munduaren sintomak”

Deskribapena: Taldeka, munduari gaur egun eragiten dion egoera bat aukeratu behar dute ikasleek (1.1 fitxan gai batzuk proposatzen dira). Aukeratu ondoren, talde bakoitzak dagokion gaiari buruzko informazioa bilatuko du, esate baterako, egunkarietan eta Interneten: egoeraren jatorria, kaltetutako guneak eta taldeak, zer egiten ari den egoerari aurre egiteko, parte hartzeko zein bide dauden... Behar adina informazio jaso ondoren, taldeek berri bat idatziko dute, eta egoera horren aurrean jarduteko eta parte hartzeko zein bide dauden adieraziko dute. Ondoren, irrat-programa grabatuko da, taldeek egindako lanarekin; saio hori gizartearen parte hartzeko era bat dela hartu behar da kontuan.

Materiala: 1.1 fitxa, Internet, egunkariak, grabagailua.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko hiru saio.



2. jarduera:

“Bideak ikertzen ditugu”

Deskribapena: Pertsona guztiok esparru guztietan parte har dezakegunez, ikerlan bat egitea proposatzen da, ikasleen inguruan zein elkarte eta erakunde dauden jakiteko. Taldeka, bi erakundetara bisita egin eta elkarrizketa bat egingo dute, zein esparrutan lan egiten duten eta parte-hartze sozialerako zein aukera eskaintzen duten jakiteko.

Informazioa bildu ondoren, talde bakoitzak kartel bat egingo du, klaseko gainerakoei zein informazio eskuratu eta aztertu duten erakusteko.

Materiala: 2.1. fitxa.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko bi saio gelan eta bisitak erakundeetara.

Iradokizuna: : Kartelak zentroko pasilloetan jar daitezke, jende gehiago sentsibilizatzeko.

3. jarduera:

“Gure proposamenak”

Deskribapena: Aurreko jardueran planteatutako ikerlana egin ondoren, norberaren barruan parte hartze-ko ditugun eta askotan onartzen edo ezagutzen ez ditugun bideen inguruko berri original bat idaztea proposatzen dugu. Idatzitako artikulua zentro arteko *"Munduko hiritarrok"* proposamenean aurkez daitezke, Interneten egunkari bat egiteko.

Dinamika: Banakakoa.

Denbora: 50 minutuko saio bat.

1.1. Fitxa

Parte hartzeko era asko eta askotarikoak daude. Gainera, hainbat mailatan parte har dezakegu: banaka, taldeka edo pertsona-talde handia barne hartzen duen ekimen sozial batean sartuta.

Informatuta egotea parte hartzeko bide bat da. Gure inguruan zer gertatzen den jakitea, gertatzen denaren inguruko interesa izatea eta nola gertatzen den interesatzea funtsezko pausoa da jarrera finko bat izan aurretik. Irizpide argiak eta ongi definituak izatea garrantzitsua da zerbaiti buruzko iritzia emateko garaian eta, jakina, horren inguruan jarduteko garaian.

Egoeraren bat sakon ezagutzen dugunean, egokia den ala ez epaitzen dugu, eta, orduan, gai horren inguruan zer egin pentsatzen dugu. Zerbaiten alde egiteko bideak bilatzen ditugu, eta protesta egin, salatu, informatu, ezagutzera eman, babestu... egiten dugu.

Orain egoera jakin batzuk aztertuko ditugu. Badakigu gure munduan etengabe gertatzen direla gauzak. Batzuk bidezkoak dira, beste batzuk ez hainbeste, baina gertatu egiten dira. Zu, gu, guztiok eta gutako bakoitza gure munduko protagonista gara, eta, horregatik, mundu honetan jarduteko eskubidea eta arduradugu.

Taldeka, gaur egun gertatzen diren egoera batzuen inguruan informatuko gara. Talde bakoitzak gai bat aukeratuko du. Gehien interesatzen zaiona. Hona hemen proposamen batzuk:

- Haurren lana.
- Baso-soiltzea.
- Kanpo-zorra.
- Gastu militarra.
- Heziketarako aukera.

Aukeratu duzue zuen gaia? Zer dakizue gai horri buruz?

Orain, informazioa biltzeko garaia da. Bilatu egunkarietan eta Interneten. Agian, irratian edo telebistan zuek aukeratu duzuen gaiarekin lotutako berriren bat emango dute.

Horrez gain, aztertu parte hartzeko zein ekintza ari diren gauzatzen (protestak, salaketak, erreferendumak, etab.)

Puntu horretara iritsita, gaiaren inguruko jarrera finkorik baduzue? Eztabaidatu taldeka atera dituzuen ondorioen inguruan.

Eztabaidarako jarraibide batzuk

- Zer egin dezakegu?
- Gelan, auzoan eta inguruan, parte hartzeko edo jarduteko zein era ditugu?
- Zein daude?
- Gaiari parte hartzeko zein era berri bururatu zaizkigu?

*Guk bat proposatuko dizuegu. Gelako guztion artean
irratirako programa bat prestatuko dugu. Talde bakoitzak
ikertutako gaiaren inguruko berria emango du
eta hiritarrek parte hartzeko bideak edo erak
proposatuko ditu. Prestatu ongi taldeka, programa
grabatu eta emititu aurretik,
eta jarraitu gaiarekin hurrengo hiletan ere!*

2.1. Fitxa

Sure gizartean zein era ditugu baten edo bestearen alde egiteko? Seguru asko, galdera horri emango dizkioten ohiko bi erantzunak hauek dira: Hauteskundeetan botoa ematea (horretarako ezinbestekoa da 18 urte izatea) eta manifestazioetara joatea.

BESTE ERARIK BURURATZEN ZAIZUE?

Egia da banaka esku har dezakegula, baina, egoera batzuen aurrean, ezinbestekoa da urrutiago iritsi ahal izateko antolatzea. Gaur egun talde, GKE eta erakunde asko daude gizartean parte hartzea errazten dutenak.

Seguru asko, zuek bizi zareten tokian badago baten bat, ezagutzen dituzu?

Ikerlan bat egitea proposatzen dizuegu gure inguruan dauden erakundeen berri izateko eta zertan aritzen diren eta gizartean parte hartzeko zein era eskaintzen dituzten jakiteko.

- 1** Bilatu ezagutzen dituzuen GKEei buruzko informazioa, eskolarekin elkarlanean aritzen diren GKEei, auzoan daudenei, telebistan askotan ateratzen direnei eta beste hainbati buruzkoa, eta sailkatu horietako bakoitzak egiten duen lanaren arabera.
- 2** Orain, aukeratu horietatik bi eta prestatu horietara joateko bisita, sakonago ezagutzeko. Erakundeak bisitatu aurretik, taldeka, diseinatu elkarrizketa-eredu bat ikerketarako datu garrantzitsuenak zein diren jakiteko. Kontuan hartu garrantzitsua dela egin beharreko galderak arretaz aztertzea, behar duzuen informazio guztia labur jaso eta bildu ahal izateko:
 - Erakundearen helburua.
 - Egiten duen lana.
 - Gizartean parte hartzeko eskaintzen dituen aukerak.
 - Zergatik hartzen du parte jendeak?
 - Zer lortzen dute jarduera horrekin?


*Era horretako erakunderen batean parte hartzen duen pertsonarik ezagutzen duzue?
Zergatik hartzen du parte?*

- 3** Zuen ikerlana aurkezteko, horma-irudi bat egin dezakezue, eta zentroko paretetan daudenekin batera jarri; horrela, parte hartzeko eta protagonista izateko dituzten aukeren berri emango diezue zuen ikaskideei.

Etika / Erlijioa



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Parte-hartze sozial arduratsurako bideak ezagutzea.
- Parte hartzearen gaiari buruz hausnarketa egitea: erak, esparruak, uneak.
- Gizartean parte hartzeko norberaren ardura onartzea.
- Gure ekintzek duten garrantzia eta ondorioa deskubritzea eta horiez jabetzea.
- Irudimena eta sormena garatzea.

Jarduerak

1. jarduera:

“Parte hartu zure bisitan”

Deskribapena: Taldeka, zentroan dauden horma-irudiak ikusiko dituzte ikasleek. Horietako bakoitzak parte hartzeko une eta ikuspegi jakin bat azaltzen du.

Bisita hori egin aurretik, horma-irudietako esaldiak estali eta irudiak bakarrik geratuko dira agerian.

Ibilbidean, irudi horietan ikusten denaren inguruan eztabaidatuko dute ikasleek.

Talde guztiek hamar horma-irudiak ikusi ondoren, ateratako ondorioekin bateratze-lana egingo dute, eta horma-irudietako esaldiei estalkia kenduko diete. Horma-irudiarekin transmititu nahi denaren eta ikasleek interpretatu dutenaren arteko desberdintasunak eta antzekotasunak baloratzea garrantzitsua da.

Materiala: Horma-irudiak, kartoi mehea, zelaia.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko saio bat.

Iradokizuna : Jarduera horren aldaera bat hauxe da: talde bakoitzari karteletan buruzko esaldi-zerrenda bat ematea (ezkutatu diren horietatik ere izan daitezke), esaldien eta kartelen artean dauden loturak bilatu eta horma-irudi bakoitzari zerrendako esaldi bat emateko.



2. jarduera:

“Eta nola egingo dugu?”

- Deskribapena:** Taldeka, zentroa apaintzen duten horma-irudiak ikusi ondoren, parte-hartzeari buruzko ideia-jasa bat egingo da. Gure gizartean, parte hartzeko zein era daude? Guk ezagutzen ez dugun beste modurik badago? Nola funtzionatzen dute? Zergatik? Zertarako? Zein esparrutan parte har dezakegu? Non, nola eta noiz parte hartzeari buruz hitz egi-tea da kontua.
- Ideia-jasaren ondoren, taldeka, ikasleei garrantzitsuenak iruditzen zaizkienak bilduko dituzte, eta, guztiok bateratu ondoren, jarduera honi dagokion horma-irudian zein jarri-ko diren erabakiko da.
- Materiala:** Horma-irudiak, margoak, errotuladoreak, etab.
- Dinamika:** Taldekakoa.
- Denbora:** 50 minutuko saio bat.
- Iradokizuna :** Gelan eta ikastetxean bertan parte hartzeko aukeren inguruan ere lan egin daiteke.

3. jarduera:

“Zenbat pisatzen du elur-maluta batek?”

- Deskribapena:** 3.1 fitxan azaltzen den kontakizuna bakarka irakurri ondoren, ikasleek formulatutako gal-derei erantzungo diete, eta, irakurritakoaren ondoren ateratako ondorioak komentatu eta hausnarketa taldean egingo dute.
- Materiala:** 3.1 fitxa.
- Dinamika:** Banakakoa eta taldekakoa.
- Denbora:** 50 minutuko saio bat.
- Iradokizuna :** Jarduera hau erlijioan aplikatzeko prestatuta dago. Hala ere, Jesusen irudiari erreferentzia egiten dioten gaiak alde batera utzita edo aldatuta, tutoretzan edo etikan ere egin daiteke.

3.1 Fitxa

Inoiz pentsatu al duzue gauzek zenbat pisatzen duten? Gure ekintzek zein garrantzi izan dezaketen? Honako hau txori baten, zuhaitz baten eta ezer pisatzen ez duen elur-maluta baten istorioa da.

Ezerezaren pisua

- Esadazu zenbat pisatzen duen elur-maluta batek, – galdetu zion txolarreak usoari.
- Ezer ere ez, - erantzun zion.
- Orduan gauza miragarri bat kontatu behar dizut, - esan zion txolarreak:
- Izei baten adarrean, zuhaitzaren enborretik gertu, pausaturik nengoela, elurra egiten hasi zuen. Ez zen elur-ekaitz handia, ez eta haizete indartsua ere. Horietako ezer ere ez. Ametsetan bezala egiten zuen elurra, indarrrik gabe. Eta zereginik ez nuenez, ni pausaturik nengoen adarreko zurtointxoetan geratzen ziren elur-malutak

kontatzen hasi nintzen. Zehatz-mehatz 3.741.952 elur-maluta kontatu nituen. Hurrengo elur-maluta adarraren gainera erori zenean, zuk diozun bezala ezer ere pisatzen ez bazuen ere, adarra hautsi egin zen.

Hori esan ondoren, txolarrea hegan urrundu zen.

Eta usoa – Noeren garaitik gaian aditua zena – txolarreak kontatu zionaren inguruan hausnarketa egiten geratu zen, eta, azkenean, haxe esan zuen:

- - Agian, pertsona bakar baten hitza falta da mundu honetan bakea izan dadin.

Taldean hausnartzeko

- Zein mezu iradokitzen digu kontakizunak? Zein ideia nagusi eta ondorio atera ditugu testua irakurri ondoren? Komentatu taldean.
- Askotan uste dugu gustatzen ez zaizkigun gauzak aldatzeko ezer gutxi egin dezakegula edo ezin dugula ezer egin. Zer erakutsi digu ipuinak?
- Seguru asko, Bibliako hainbat pasartetan, ipuinaren esanahi berbera duen mezua igortzen du Jesusek. Bila dezakezue baten bat?
- Nolako jarrera zuen Jesusek? Zein eredu ematen digu bere bizitzarekin? Zertara animatzen gaitu?

*Gustatzen ez zaiguna aldatzea, gure mundua leku hobea bilakatzea gure ardura ere bada. Gure ekarpena oso garrantzitsua da.
Ezin dugu "pisu" guztia besteen esku utzi*

